Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

## PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

### GIPUZKOAKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN BARNE EKINTZAILETZA KORPORATIBOARI ERAKUNDEEN BABESA EMATEKO PROGRAMAREN DISEINUAREN KONTRATAZIOA

### AURREKARIAK

1. Gipuzkoa apustu estrategiko historikoa egiten ari da barne ekintzailetzaren alde; izan ere, bertako erakundeak eta babes eragileak, Gipuzkoako Foru Aldundia buru dela, enpresen barne ekintzailetzaren aldeko etengabeko lana egiten ari dira azken hamarkadan zehar, arreta berezia jarrita industria arloan, jarduera ekonomiko berria eta kalitatezko enplegua sortzeko iturri den aldetik; halaber, etengabeko hausnarketan eta egokitzapen estrategikoan gero eta gehiago oinarritzen den enpresa-kultura sustatzeko ahaleginetan ari dira, betiere kontuan hartuta inguru lehiakorrak eskaintzen dituen aukerak eta aldaketak.

2. Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainek gero eta gehiago behar dituzte eraldaketa lehiakorrari aurre egiteko estrategiak, batez ere intsertzio globaleko balioari lotutako alor eta kateetan, non abiadura handiz berritzen ari diren joko arauak. Estrategia horiek baliagarriak dira:

    a. Enpresen proiektu jasangarriak, errentagarriak,

## PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

### CONTRATACIÓN DEL DISEÑO DE UN PROGRAMA DE APOYO INSTITUCIONAL AL INTRAEMPRENDIMIENTO CORPORATIVO EN LA PYMES GUIPUZCONAS

### ANTECEDENTES

1. Apuesta estratégica histórica de Gipuzkoa por el intraemprendimiento, a través del esfuerzo desplegado, durante más una década, por sus instituciones y agentes de apoyo, liderados por la DFG-GFA de apoyo continuado al intraemprendimiento empresarial, especialmente industrial, como fuente de creación de nueva actividad económica y empleo de calidad, y de promoción de una cultura empresarial cada día más basada en la reflexión y adaptación estratégica permanentes ante las oportunidades y cambios del entorno competitivo.

2. Necesidad creciente de las pymes de Gipuzkoa de abordar estrategias de transformación competitiva, especialmente en aquellos sectores y cadenas de valor de inserción global donde las reglas de juego se están renovando a gran velocidad. Se trata de estrategias que:

    a. Ayuden a las empresas a consolidar proyectos de futuro sostenibles, rentables,

berritzaileak, «glokalak», erakargarriak, partaidetzazkoak eta inguruan sustraituta daudenak finkatzen laguntzeko, eta

b. bateratzeko produktu, zerbitzu eta konponbide berrien garapena, dibertsifikazioa (negozio nagusiarekin gutxi gorabehera lotutakoa), internalizazioa, berrikuntza (gero eta irekiagoa, helburuak eta mailak kontuan hartuta), eta eragile eta ekosistema askorekin izan beharreko lankidetza, hain zuzen ere handitzera, berritzera, eta teknologia nahiz talentua lortzera, besteak beste, bideratutako hainbat formula erabilita (organikoak edo inorganikoak).

innovadores, "glokales", atractivos, participativos y arraigados en su entorno, y

b. Combinen el desarrollo de nuevos productos/servicios/soluciones, diversificación (más o menos relacionada con el negocio principal), internacionalización, innovación (cada día más abierta, con sus diferentes horizontes o grados) y colaboración con múltiples agentes y ecosistemas a través de diversas fórmulas (orgánicas e inorgánicas) orientadas a crecer, innovar, acceder a tecnología y talento, etc.

- 3. Duela gutxi onartu da «ETE ekintzailea» izeneko etorkizuneko proiektua edo ekintza lerroa, Etorkizuna Eraikiz ekimeneko lehiakortasunerako Think Tankaren hausnarketatik abiatuta:
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko ekintzailetza eta barne ekintzailetzara bideratutako laguntza estrategikoari gehitzen zaio, arreta berezia

- 3. Aprobación reciente del futuro proyecto o línea de acción "PYME Emprendedora", a partir de la reflexión del Think Tank de Competitividad de Etorkizuna Eraikiz, que:
- Se suma al apoyo estratégico al emprendimiento e intraemprendimiento del Dpto. de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de DFG-GFA, con especial énfasis en los cuatro sectores estratégicos de especialización inteligente de

emanez Gipuzkoako espezializazio adimenduko lau sektore estrategikoei (fabrikazio aurreratua eta zibersegurtasuna, mugikortasun elektrikoa, gastronomia digitala, biozientziak...)

- Eta bat egiten du «Barne ekintzaileetzari laguntza emateko euskal ekimenaren» barruan erakundeen artean egiten ari den lanarekin.
- Eta erantzuna ematen die «Gipuzkoako ekintzailetza estrategia eta estrategia hori garatzeko ibilbide liburu bat zehaztea» izeneko estrategian jasotako proposamenei.

Gipuzkoa (fabricación avanzada y ciberseguridad, electro movilidad, gastronomía digital, biociencias...)

- Y se alinea con los esfuerzos interinstitucionales de la "Iniciativa vasca de apoyo al intraemprendimiento.
- Y, atendiendo a las propuestas de la "Estrategia de emprendimiento en Gipuzkoa y, la concreción de un libro de ruta para su desarrollo"

**KONTRATUAREN OBJEKTUA**

Kontratuaren objektua da Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetan barne ekintzailetza korporatiboari erakundeen babesa emateko programa bat diseinatzeko ikerketa lanak kontratatzea.

Horrek berekin dakar:

1. Lan prozesu bat diseinatzea urte anitzeko esparru batean, eta baita ere proiektu pilotuetan enpresei laguntzeko eredua eta tresnak prestatzea.
2. Proiektu pilotuak aurrera eramango dituzten ETEak aukeratzea, Gipuzkoako ETE sarearen lagin adierazgarri gisa, haiek duten esperientzia

**OBJETO DEL CONTRATO**

El objeto es la contratación de la realización de un estudio para diseñar de un programa de apoyo institucional al intraemprendimiento corporativo en la pymes guipuzconas.

Lo que supone:

1. Diseñar el proceso de trabajo en un marco plurianual, así como el modelo y herramientas para el acompañamiento a las empresas en los proyectos piloto.
2. Seleccionar las pymes participantes para la realización de proyectos piloto, a modo de muestra representativa del tejido pyme de Gipuzkoa, en base a su experiencia

ekintzailearen, sektorearen (Gipuzkoarako estrategikoa) eta bakoitzaren momentu lehiakorraren arabera.

emprendedora, su sector (estratégico para Gipuzkoa) y el momento competitivo de cada una.

Eta eginkizun hauek garatuko dira gutxienez:

- ❑ Lan prozesu integrala, berritzailea eta GFAko estrategiarekin bat datorrena planteatzea.
- ❑ Sozializazio eta kontrasteko dinamika planteatzea.
- ❑ Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetara eta horien beharretara egokitutako esku-hartze eredu bat diseinatzea.
- ❑ Laguntzako gida praktiko bat diseinatzea, laguntza ibilbide desberdinak eta tresna nahiz metodologien erabilera onartzen dituena.
- ❑ Proiektu pilotuak egiteko hautagai diren enpresa txiki eta ertain adierazgarri eta desberdinak identifikatzea eta ebaluatzea.

Y, el desarrollo, como mínimo, de las siguientes tareas:

- ❑ Plantear un proceso de trabajo integral, innovador y alineado con la estrategia de DFG
- ❑ Plantear la dinámica de socialización y contraste
- ❑ Diseñar un modelo de intervención adaptado a la pyme guipuzcoana y sus necesidades
- ❑ Diseñar una guía práctica de apoyo, que permita diferentes itinerarios de acompañamiento, y el uso de herramientas y metodologías
- ❑ Identificar y evaluar a un conjunto representativo y variado de pymes candidatas para la realización de los proyectos piloto

**KONTRATUAREN OBJEKTUA ENTREGATZEKO BALDINTZAK**

Enpresa esleipendunak egin beharreko lanen jarraipenerako sistema bat, metodologia, aldizkakotasuna eta pertsonen osaera proposatzea, bai eta baldintza hauek beteko dituzten komunikazio sistema iraunkorrak ere:

- **Kalitatea:**Entregatu beharreko materialen kalitate maila ziurtatzea.
- **Irismena:** Sortutako itxaropenak betetzea.
- **Epeak:** Aurreikusitako entrega epeak betetzea.
- **Kostua:** Aurreikusitako kostuen desbideratzeak saihestea.

**CONDICIONES DE ENTREGA DEL OBJETO DEL CONTRATO**

La empresa adjudicataria deberá plantear un sistema de seguimiento de los trabajos a desarrollar, metodología, periodicidad y composición de personas, así como sistemas de comunicación permanentes que aseguren que se cumplen los requisitos de:

- **Calidad:** Asegurar el nivel de calidad de los entregables.
- **Alcance**: Cubrir las expectativas generadas.
- **Plazos**: Cumplir los plazos de entrega previstos.
- **Coste**: Evitar desviaciones en los costes previstos.

**PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA**

Proiektu honetan, haren jarraipena egiteko mekanismoak jaso beharko dira. Adjudikaziodunak izendatuko duen

**PLANIFICACIÓN Y ORGANIZACIÓN**

En este proyecto deberán contemplarse mecanismos de seguimiento para el proyecto. El responsable nombrado por el

arduradunak alderdi hauek kontrolatuko ditu:

- Departamentuarekiko solasaldia.
- Aldaketen eta arazoen komunikazioa.
- Arriskuen kudeaketa.
- Interesen eta lantaldeen koordinazioa.
- Planaren eta baliabideen kudeaketa.
- Proiektuaren dokumentazioaren kalitatea eta egitura.

adjudicatario controlará:

- La interlocución con el Departamento.
- Comunicación de los cambios y problemas.
- Gestión de riesgos.
- Coordinación de intereses y equipos.
- Gestión del plan y de los recursos.
- La calidad y estructura de la documentación del proyecto.

**Donostia / San Sebastián, 17 de junio de 2019.**

**Izptua./ Fdo.- Marisa Gabilondo Imaz**

**Ekonomia Sustapeneko zerbitzuko teknikaria**

**Técnica del Servicio de Promoción Económica**